

{ koaderno } Oier IMAZ ALIAS

Galtzaileak

nor ez da galtzaile bere pelikulan» (Monsieur Le Crêpe, 2024). Gero eta zabalagoa eta luzeagoa da lankidetzarako deiaren oihartzuna. Agian, horregatik piztu dute lankidetzaren etikak, estetikak eta mekanikak hainbat pentsalariren interesa.

Lankidetzak, edo kooperazioak, izaera paradoxikoa du, bere arrakastan aurkitzen baitu bere akabera. Esperientziak esaten digu jendeak behar zehatz bati erantzunez erakusten duela bere hoberena. Gai gara denon ongizatearen alde engaiatzeko, gure interes propioak alde batera utzita.

Adibide ugari ditugu gure herrian. Baina behar bati erantzunez sortzen dena behar horrekin batera doa. Hau da, lankidetzari buruzko kezka ez da kooperatzeko gai garen edo ez. Galdera da zerk ahalbideratu edo oztopatzen duen lankidetzaren mantentzea denboran, behar zehatz bati emandako erantzunetik harago.

Edo, orokorrago, ea lankidetzan aritzeko gai garen horrela nahi dugulako, eta ez, soilik, momentu zehatz batean beharrezkoa zaigulako.

SCOOP (scoop-program.org) gai hauek aztertzen dabilen Holandako ikerketa programa da. Bertan aztertzen dute lankidetzaren iraunkortasuna hiru erronka partekaturen kasuan: lana, zaintza eta inklusioa. Zehazki, lankidetzaren iraunkortasuna mehatxatzen duten hiru dinamika aztertzen dituzte. Hiruretako bat da, adibidez, atzeraelikadura zikloa. Ideia nagusia da momentu batean lankidetzaren posible egiten duten azpiegiturak beraiek kaltetu dezaketela lankidetzaren iraunkortasuna denboran. Honen adibide, burokraziaren paradoxa. Elkarrekin antolatzen garen heinean joaten gara gure arteko harremanak arautzen dituzten normak, legeak, instituzioak... eratzen. Kontua da, momentu batetik aurrera lankidetzaren araua edo norma izatera mugatzen bada, pertsonen arteko lankidetzaren kaltetan izaten dela.

Edonola, landu dituzten adibideetan ikusi daiteke irakurketak askotarikoak izan daitezkeela. Adibidez, atzeraelikadura zikloaren adibide bat da talde polari-

zazioa. Talde mailako arauak eta normak oinarritzko adostasunak adierazten dituzte. Baina ez hori bakarrik. Taldeen arteko desadostasunak ere bai. Lagunik hoberenak egiten ditugu etsaien kontra. Horregatik, talde polarizazioak lagundu dezake inklusioan. Atzerri bizitzera joan eta, bertan integratzeko, futbol talde batean izena ematen dugunean bezala. Albo kaltea da, oster, John Woods (2005) pentsalariak aipatzen zituen burbuila epistemikoen fenomenoak. Finean, taldea bere barnean ixten bada, burbuilatik kanpo dau-

Lankidetzaren iraunkortasuna izan dadin, ezinbestekoa da burbuilatik ateratzeko prestutasuna; besteak entzuteko, besteen begietatik norberari begiratzeko...

denei entzuteko gaitasuna galtzen dugu. Eta honek, agerikoa denez, taldeen arteko lankidetzaren mehatxatzen du; gaitasun ezinbestekoa, lana, zaintza edo inklusioa bezalako erronkei aurre egin nahi badiugu.

Ondorio modura esan dezakegu lankidetzaren edo kooperazioaren ez dela bere horretan ona edo txarra. Rafael Wittek (2022) irakasleak aipatzen duen moduan, lankidetzak lagundu dezake komunitateen edo erakundeen (biz)iraupenean edo erresilientzian. Baina erresilientziak ez dauka balio normatiborik: ezin dugu behartu elkarte bat edo komunitate bat (biz)irautea; honenbestez, ezta kooperatzera ere. Aldiz, bizirauteko nahia edo gogoak duten elkarte, instituzio edo komunitateen kasuan, esan dezakegu lankidetzaren ona dela eta lagungarria, adibidez, partekaturiko erronkei aurre egiteko (lana, zaintza, inklusioa). Orain, lankidetzaren iraunkortasuna izan dadin, ezinbestekoa da burbuilatik ateratzeko prestutasuna; besteak entzuteko, besteen begietatik norberari begiratzeko... Finean, inor ez baita galtzaile bere pelikulan. Baina nor dago gaur egun galtzaile izateko prest? (jarraituko du...) •